



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 9a

17. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Familientzako Laguntza Integralari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, administrazioaren menpeko zerbitzu pribatizatuak sektore publikorako berreskuratzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (13. or.).

—Jabeldura, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokionez Nafarroak izan beharko lituzkeen eskumenei buruzkoa. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren jarrerari buruzkoa, Nafarroako Ubidea eta Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmena direla-eta. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan hezkidetzarako eta genero indarkeriaren prebentziorako plan bat, Nafarroako hezkuntza sisteman aplikatzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa programa bat aurkez dezan N-121-A errepidean hobekuntzak egiteko. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langabeziaren aurkako talka-plan bat taxutu dezan, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoaren garapen orekatua sustatzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza bermatzeko plan bat presta dezan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, 14/2015 Foru Legearen aplikazio-eremua berma dezan, aipatu legea aplikatzeko plan estrategiko bat gara dezan eta toki entitateek emakumeei laguntzeko ematen dituzten zerbitzu guztiak mantentzea berma dezan. Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nekazaritzako Ustiapenen Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta martxoaren 22ko 3/2007 Berdintasunaren Lege Organikoa landu ditzan eta horietan sakon dezan, emakumeek nekazaritza sektorean erabateko sarbidea izan dezaten sustatze aldera. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen Kunduzeko ospitalearen aurkako bonbardaketa dela-eta nazioartean egindako gaitzespenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Foru erkidegoaren funtsentzat Audenasaren administrazio kontseiluek izan duten kostuari eta ordaindu diren kontzeptuei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Erriberan enpleguaren egoera hobetzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, pertsona transexualen arreta integralari buruzko 12/2009 Foru Legeari buruzkoa. Virginia Aleman Arrastio andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Sodenak “Caviar Per Sé” enpresan izandako partaidetza ekonomikoari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, babesgabetasun moderatu edo larriko arriskuan dauden adingabeen egoerari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (26. or.).
- Galdera, etxebizitzaren alokairu publikoaren sustapena dela-eta hipotekek ukitutako enplatei azaldutako enplatei buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Nafarroan ETB hartzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, azken hamabost urteetan segurtasun kidego desberdinek Nafarroan atxilotutako pertsonen eta argitutako delituen buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta erantzuteko eta errenta emateko epeari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, baztertzeko arriskuan dauden familiei etxebizitzaren funtzionamendurako oinarritzeko hornidurak bermatzeko laguntzei buruzkoa. M.<sup>a</sup> Isabel García Malo andreak egin du (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidean egin gabe dauden faseek ukitutako herrietako alkateekin izandako bilereari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Alesbeseko “El Castellar” ikastetxe publikoari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Larraungo Gabari etxeari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Justizia Ministerioarekin Justizia Administrazioaren hobekuntza teknologikorako sinaturiko hitzarmenari buruzkoa. Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (33. or.).
- Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako batzorde klinikoari buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (34. or.).
- Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (34. or.).
- Galdera, laneko osasun plan berri bat prestatzeari buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (35. or.).
- Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 7.1. artikulua betetzeari buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (36. or.).
- Galdera, Alesbeseko “El Castellar” HLHIPari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (36. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Parlamentarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen bidaia ofizialengatiko ordainsarien araubidea (38. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearen eleduna aldatzea (38. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Familientzako Laguntza Integralari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana Beltrán Villalba andreak Familientzako Laguntza Integralari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Familientzako Laguntza Integralari buruzko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Familiari laguntza integrala emateko Foru Lege proposamena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Historikoki, familia gure gizartearen errealitate konplexuenetako bat izan da Nafarroan eta munduan. Familiaren definizioa eta osaera aldatzen joan da, bere bilakaeraren arabera, errealitate sozio-kulturalen arabera eta ezarrita dagoen garai, erregio eta herrialdeen arabera.

Hala eta guztiz ere, halako adostasun bat dago nazioartean, familia gizartearen funtsezko elementu baten gisara eta oinarrizko batasunaren gisara babestu beharri buruz. Familiak gura garapen sozial, ekonomiko, politiko eta kulturala egituratzen du. Familiak, halaber, zeresan garrantzitsua dauka gizartearen kohesiorako ardatz eta tresna gisa, belaunaldien barneko eta belaunal-

dien arteko elkartasunaren bultzatzaile gisa eta herritarren nortasuna libreki garatzeko ildo berezi gisa.

Tradizionalki, gure erkidegoan, sustapen neurriak familiei laguntzeko planen bitartez gauzatu izan dira; egungo errealitatea, ordea, Nafarroan familiei buruzko lege bereki bat ez edukitzeak markatuta dago.

Lege proposamen honek araudiaren arloko huts hori bete nahi du. Sorrerako arrazoi du ziur gaudela familia gizartea eraikitzen eta hobetzen laguntzeko gaitasuna duen elementu baten gisara hartu beharra dagoela. Laguntzarako planteatzen dugun lege-esparruak ikuspegi integral bat dauka: familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatzen du, modu orokor eta iraunkorrean.

Nafarroak maila egokia duen lege-esparrua eduki behar du, familien bizi kalitatearen garapenaren arabera, aitortuz haiek eskubidea dutela behar adina baliabide eta prestazio jasotzeko, une zailtan beti izan duten babes sozialaren eginkizuna indartuz eta ahulezia-kasuetan erantzun eraginkorra emanen dela bermatuz.

Legearen egiturak 48 artikulua ditu, lau xedapen gehigarri eta bi azken xedapen. Honakoetarako neurriak jasotzen ditu: bateragarritasuna; gizarte sentibilizazioa; enplegua; etxebizitza; hezkuntza; kultura; turismoa; arlo sozial, sanitario eta fiskala; zuzeneko laguntzak, eta parte-hartzea. Gainera, arreta berezia behar duten familien sailkapen bat ere jasotzen du. Horien artean, honakoak daude: familia ugariak, guraso bakarreko familiak, beren kargura adineko pertsonak dituzten familiak, desgaituak dauzkaten familiak, mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiak eta ahulezia-egoeran dauden familiak.

#### **1. artikulua.** Xedea eta helburuak.

Honakoak dira foru lege honen xedeak:

**1.** Aitortzea familia Nafarroako gizartearen oinarrizko egitura dela, bai eta pertsonaren garapenerako esparru naturala ere.

2. Familiek beren eginkizunak betetzen dituzten esparru guztietan, haiei laguntza emateko politika integral bat diseinatu eta garatzea bideratuko duen lege-esparru bat ezartzea.

3. Haiei babesa emateko printzipioak helburuak eta hartu behar diren neurriak finkatzea.

4. Botere publikoek Nafarroako familiei laguntza emateko jarduketak ezartzeko oinarriak jartztea.

## 2. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Foru lege hau aplikatzekoa zaie Nafarroako Foru Komunitateko edozein udalerritan errolatuta dauden familiei; honakoiei, zehazki:

a) Ezkontza bidez edo udal baten nahiz autonomia erkidego baten bikote egonkorren erregistroan izena ematearen bidez elkarrekin lotuta dauden pertsonak, haien aurrekoak, haien menpe dauden pertsonak –filiazio bidez, adopzio bidez, tutoretza bidez nahiz harrera bidez– eta haien kargura daudenak, bizikidetasunaren gune egonkor bat osatzen duten bitartean.

b) Norbanakoak eta haien aurrekoak, haien menpe dauden pertsonak –filiazio bidez, adopzio bidez, tutoretza bidez nahiz harrera bidez– eta haien kargura daudenak, bizikidetasunaren gune egonkorra osatzen duten bitartean.

c) Haurdun dagoen emakumea eta bakarka adoptatzeko prozesuan dagoen emakumea edo gizona, adopzio aurreko familia harrera egin duen pertsona edo antzeko egoeran dagoena.

d) Familia-autoritatea gurasoez besteko pertsonengan daukaten familiak, legedi indardunearan finkatutako terminoetan.

2. Lege honetatik eratorritako prestazioak eta laguntza-neurriak, halaber, bakarrik bizi diren pertsonen edo familiaz besteko bizikidetasun-taldetan bizi direnei aplikatu ahalko zaizkie, aplikatzekoa den araudi sektorialak hori aurreikusten duenean.

## 3. artikulua. Printzipio gidariak.

Foru komunitateko administrazio publikoek honako printzipio gidari hauei jarraikiz egiten dituzte familia arloko beren jarduketak:

a) Askatasun printzipioa.

Familia-bizitza eta bizikidetasuna antolatzeko askatasuna aitortuko da beti, familia osatzen duten pertsonen duintasunaren eta funtsezko eskubideen errespetua oinarri, Nafarroako foru zuzenbide zibilarrekin edo aplikatzekoa den araubide juridikoarekin bat.

Familiek beren familia-proiektua gauzatu ahal dutela bermatuko da, eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabideak emanen zaizkie eta ezabatuko egiten dira bide hori ekidin, mugatu edo oztopatzen dituzten traba guztiak.

b) Berdintasun printzipioa.

Aitortu eta errespetatu egiten da gizonezkoek eta emakumezkoek duintasun, eskubide eta familia-bizitzaren arloko ardura berak dituztela.

c) Ardura publikoaren printzipioa.

Babes integrala bermatuko zaie familiari eta ordenamendu juridikoak aitortutako bizikidetasun-forma ororen eskubideei. Berariazko arreta emanen zaie lege honetan arreta bereziki definitutako familiei.

d) Zeharkakotasun printzipioa.

Administrazio publiko nafarrek familiaren babesarako gauzatzen dituzten babes politikek familien bizitza eta jarduera gauzatzen diren esparru guztiak hartuko dituzte.

e) Parte-hartzearen printzipioa.

Sustatuko da familiek parte har dezaten beraiengan eragina duten politiken diseinuan eta gauzatzean, familia-elkarteen eta familien ordezkariak duten bestelako erakunde batzuen bidez.

f) Kooperazio printzipioa.

Bilatuko da ahaleginak eta baliabideak integratzea familia-politiken diseinuan eta garapenean, betiere lankidetzaren publikoa eta pribatua sustatuz.

g) Hurbiltasun printzipioa.

Herritarrak familiari arreta eta laguntza emateko baliabideak ahal den eta eskurago eta hurbilago edukitzea bilatuko da, Nafarroan dagoen eskualde- eta lurralde-antolamendua kontuan hartuta.

h) Jarraitasun printzipioa.

Foru erkidegoko botere publikoek familia-politiken jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatuko dute, eta bilatuko dute haien diseinua eta garapena lor daitekeen adostasun politiko eta sozial zabalarekin gauzatu daitezkeen.

i) Orokortasun printzipioa.

Familiei laguntza emateko politiken oinarriko xedea izanen da Nafarroako familia guztiak babestea; hori, halere, ez da eragozpena izanen beharrikan edo egoera jakin batzuei konponbidea emateko jarduketak egiteko, arreta berezia behar duten familiek laguntza berariazkoagoa behar badute.

**4. artikulua.** Xedekak.

Honakoak dira Nafarroan familiari laguntzeko politika publikoen helburuak:

a) Familia aitortzea oinarrizko gizarte batasun gisa, eragile integratzaile, hezitzaile eta egonkortzaile gisa, eta gizarte kohesiorako tresna gisa, eta haren aitorpen soziala sustatzea.

b) Behar diren baldintzak sortzea familiaren garapena ahalbidetzeko.

c) Familiari arreta emateko politika koordinatu eta integral bat bermatzea Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen jarduketetan, haren bizi kalitatea hobetzeko eta oinarrizko beharrizanei estaldura emateko.

d) Norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egin daitezen sustatzea; horretarako, erraztu eginen dira bai norbanakoaren garapena, bai haren familia-inguruarena ere.

e) Jarduketa batzuk ezartzea, lege honetan arreta berezikotzat definitutako familien parte-hartzearen eta aukeren berdintasuna bultzatzea ahalbidetuko dutenak.

f) Belaunaldien arteko eta belaunaldi barruko elkartasuna sustatzea.

g) Behar diren baldintzak sortzea aitasuna eta amatasuna positiboki gauza daitezen sustatzeko.

**I. TITULUA****Familiak babesteko, artatzeko eta laguntzeko neurriak****I. KAPITULUA****Norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak****5. artikulua.** Printzipioak.

1. Foru erkidegoko administrazio publikoek norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea bideratuko duten neurriak ezarri eta bultzatuko dituzte, bai arlo publikoan, bai arlo pribatuan ere, emakumeentzat eta gizonentzat aukera berak bermatuz, dauzkaten familia-erantzukizunak behar bezala artatu ahal ditzaten, lanbidean aurrera egin dezaten eta bizitzaren esparru guztietan beren burua garatu ahal dezaten.

2. Giza baliabideak kudeatzeko oinarrizko tresna bezala bateragarritasunak daukan garrantziaz buruzko sentsibilizazioa sustatuko da, lanaren, familiaren eta norbanakoaren esparruetan daukan onurak nabarmenduz.

3. Nafarroako Gobernuak sustatuko du administrazio publikoetan bateragarritasun-neurriak aplika daitezela. Horri begira, administrazio publikoaren artean behar diren lankidetzak-hitzarmenak egin ahalko dira neurri horien ezarpenari begira.

**Lehenengo atala  
Administrazio-jarduketa****6. artikulua.** Sentsibilizazioa.

1. Nafarroako Gobernuak sentsibilizazio kanpainak eginen ditu, gizarte kontzientziatze aldera norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteak dauzkan onurei buruz.

2. Sustatu eginen da komunikabide guztiek eginkizun aktiboa izan dezatela edozein bazterkeria mota deuseztatzearen arloan eta erantzunkidetasuna eta genero-berdintasuna gizarte balio gisa bultzatzearen arloan.

**7. artikulua.** Kontratazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren esparruan, baldintza administratibo partikularren orriek lehentasuna adierazi ahalko dute kontratuak beren langileentzako bateragarritasun-neurri iraunkorrak ezartzen dituzten enpresa publiko nahiz pribatuak aurkeztutako proposamenen alde esleitzeko, baldin eta proposamen horiek, beren terminoetan, aldekoena den eskaintza berdintzen baldin badute esleipenerako oinarri diren irizpideen ikuspuntutik, arau indardunetan ezarritakoari jarraituta.

**8. artikulua.** Diru-laguntzak.

Nafarroako Gobernuak laguntza batzuk sustatuko ditu norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea bideratzen duten jarduketa eta programen garapena beren gain hartzen duten administrazio publikoentzat eta irabazi asmorik gabeko entitateentzat, baldin eta jarduketa eta programa horien azken hartzaileak familiak badira, bereziki beren egoera ekonomikoa dela eta premia handia duten familiak.

**Bigarren atala  
Hezkuntza****9. artikulua.** Hezkuntzaren arloko jarduketak.

Nafarroako Gobernuak, hezkuntzaren arloan, Nafarroako familietan norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea bideratuko duten jarduketak sustatuko ditu; horretarako, foru erkidegoaren lurralde-errealitatea hartuko du kontuan. Hona jarduketa horiek:

a) Bultzatuko da baliabide eta zerbitzu batzuk egon daitezen familia-erantzukizunak eta adingabeen zainketa- eta arreta-lanak betetzen laguntzeko, bereziki hezkuntza premia bereziak daude-nean.

b) Bideratuko da gurasoen ikastetxea hautatzerakoan lehentasunezko irizpide gisa familiaren bizitokia ez ezik, lanaren kokalekua ere sar dadin.

c) Laneko ordutegiak eta eskolakoak bateragarriak izan daitezen sustatuko da.

d) Zerbitzuen eskaintza sustatuko da, ikastetxeak irakaskuntzakoak ez diren aldietan irekiz, eta haien ordutegia luzatuz eskola-aldiaz kanpo.

e) Eskola-bizitza eta lan-bizitza harmonizatzea erraztuko da, familiaren eta eskolaren arteko lankidetzak- eta kooperazio-esparruen bitartez; horretarako, hezkuntza-espazioan parte hartzeko eta erantzunkidetasuna izateko aukerak erraztuko dira.

f) Hezkuntza-instalazioak bateragarritasunerako baliabide gisa erabil daitezen sustatuko da.

### Hirugarren atala Enplegua

#### 10. artikulua. Sektore pribatua.

1. Nafarroako Gobernuak, eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan, sustatuko du foru erkidegoaren esparruan jarduketak egiten dituzten enpresek neurriak har ditzaten langileen bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko, Nafarroaren lurralde-errealitatea kontuan hartuta. Horretarako:

a) Sustatuko da negoziazio kolektiboan gisa honetako neurriak har daitezen.

b) Familia-erantzukizunaren kontziliazioa enpresen erantzukizun sozialaren inguruko irizpide nagusi baten gisa hartuko da.

c) Nafarroan dauden hitzarmen kolektiboan azterketa bat eginen da –hitzarmen horiek neurriak jasoko dituzte norberaren bizitzaren, familia-bizitzaren eta lan-arloko bizitzaren bateragarritasuna hobetzeko, eta langileen arteko berdintasun efektiboa ezartzeko–, eta erakundearen konpromiso-maila neurtuko da.

d) Enpresetan berdintasun-planak egitea eta aplikatzea bultzatuko da; plan horietan, beste xede batzuen artean, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak jasoko dira.

e) Egoki diren neurriak hartuko dira Nafarroako enpresetan ordutegi arrazional eta malguak aplikatu

daitezen sustatzeko; horrela bai produktibotasuna, bai lan-giroarekiko asetasuna eta optimizazioa hobetuko dira.

f) Neurriak hartuko dira pizgarriak emateko beren langileei lan-arloko bizitzaren, familia-bizitzaren eta norberaren bizitzaren bateragarritasuna errazteko bideratutako zerbitzuak ematen dizkieten enpresei.

g) Enpresentzako diru-laguntzetan, barematzerako irizpide gisa, sustatuko da erantzukizun soziala sustatzen duten neurriak hartzea, langileek bateragarritasuna errazago lor dezaten.

h) Enpresariak eta langileak bateragarritasun neurrien ezarpena bideratutako jokabide egoiak garatzeko foroan antolaketa bultzatuko da.

Halaber, enpresariei eta langileei zuzendutako sensibilizazio kanpainak bultzatuko dira, familien eta enpresen arteko topagune gisa balioko dutenak.

i) Nafarroako Gobernuak bultzatuko du, inplikaturako sektoreekin batera lan eginez, aintzatespena eman dakiela modu egonkor eta jarraituan familientzako bateragarritasun- eta laguntza-neurriak ezartzen dituzten enpresei.

2. Enplegurako laguntza ematearen arloan, bateragarritasunerako laguntzak bultzatuko dira, sei urtetik beherako seme-alabak edo mendeko senideak dauzkaten langabetuentzat, kasuko arau erregulatuaz ezarritako irizpide eta baldintzei jarraituz.

#### 11. artikulua. Sektore publikoa.

1. Nafarroako Gobernuak foru erkidegoko administrazio osoan aplikatzeko tresna bat landuko du, berdintasun- eta bateragarritasun-printzipioen gauzatze efektiboa bermatuko duena. Horretarako:

a) Langileei ordutegi arrazionalak aplikatu dakizkien bultzatuko du, bai eta ordutegia malgutzeko neurriak ere, ordutegi hori familia-erantzukizunekin bateragarri gertatzen laguntzeko, hori zerbitzua egoki ematearekin uztartzen den bitartean.

b) Lan denbora efektiboak zenbatzeko sistema zabalago eta malguagoak ezartzea sustatuko da, halako moduz non aukera emanen baita ordutegiak egokitzeko, araudi indardunak bideratzen dituen tarteen barruan, bai unitatean dagoen lan-bolumenaren arabera, bai norberaren bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko beharrianen arabera ere.

c) Administrazioaren zerbitzuko langileei egoki dakizkiekeen baimen eta lizentziak arautuko ditu,

berdintasun- eta bateragarritasun-irizpide orokor-  
rrak kontuan hartuta.

d) Uda garaiko edo jai egunetako ordutegi murrizketak eta ordutegi berezien zehaztapena, ahal den neurrian, ikastetxeetako ordutegi murrizketen arabera egokituko dira.

2. Jarduketa horiek guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen funtzio publikoari buruzko lege-  
dian jasoko dira.

#### **12. artikulua.** Telelana.

1. Nafarroako Gobernuak bere zerbitzura dau-  
den langileentzat sustatuko du, lanpostuaren  
ezaugarriek horretarako bidea ematen duten  
kasuetan, aukera izan dezaten bertaratzea eska-  
tzen ez duten modalitateen bitartez lan egiteko,  
neurri hori aurreikusitako lan helburuak erdiestea-  
rekin uztartzeko modukoa den bitartean.

2. Halaber, neurri egokiak hartuko dira sektore  
pribatua telelana sustatzeko, beren produkzio-  
edo antolaketa-sistemarengatik lanaldi osoa edo  
haren zati bat lan-inguruneaz kanpo egitea bidera-  
tzen duten enpresa eta entitateen kasuan.

#### **Laugarren atala** **Gizarte zerbitzuak**

#### **13. artikulua.** Gizarte zerbitzuak.

Nafarroako Gobernuak abian jarriko ditu, gizar-  
te zerbitzuen arloan, Nafarroako familietan norbe-  
raren bizitza, familia-bizitza eta lan-bizitza batera-  
garri egitea erraztera bideratutako jarduketak,  
kontuan hartuta aplikatzekoa den araudi sektoriala  
eta erkidegoaren lurralde-errealitatea. Horri dago-  
kionez, honakoak jasoko dira:

a) Seme-alaba adingabeak, adineko pertsonak  
eta desgaitasuna nahiz mendetasuna duten per-  
sonak dauzkaten familietan bateragarritasuna  
erraztuko duten gizarte izaerako zerbitzuen gara-  
pena, kontuan hartuta lege honetan arreta  
berezikotzat jotzen diren familien beharrezan.

Hartara, bilatuko da, besteak beste, eguneko  
eta egoitza-izaerako zentroen, eguneko egonal-  
dien programen, familiek atseden hartzeko progra-  
men eta etxek etxeko laguntza-zerbitzuen sare bat  
ezar dadila, titularitate publikoak nahiz pribatu-  
koak, pertsonen eta familien beharrezan arabe-  
rakoak.

b) Adingabeen arreta- eta zainketa-jarduerak  
garatzeko oinarritzko baldintzen araupetzea, bera-  
riaz zero eta hiru urte bitarteko adingabeei zuzen-  
dutakoak.

c) Belaunaldien arteko aisia partekatuko jar-  
duerak garatzea.

d) Elkarrekiko laguntza- eta elkartasun-zerbi-  
tzuak eta ekimenak abian jartzea erraztuko duten  
neurriak.

e) Aukeren berdintasunaren arloko sen-  
sibilizazio-jarduketak ezartzea.

## **II. KAPITULUA** **Familiei laguntzeko neurriak**

### **Lehenengo atala** **Neurri materialak**

#### **14. artikulua.** Etxebizitzaren arloko neurriak.

Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren erosketa,  
alokairua, zaharberritzea eta sustapena bultzatuko  
ditu, etxebizitzaren kudeaketa soziala antolatzea  
bideratutako berariazko plan baten esparruan,  
ezartzen diren betekizun eta baldintzen arabera.  
Helburu hori lortzeko, honako neurri hauek garatu-  
ko dira, besteak beste:

a) Familien eta haien kideen beharrezan eta  
inguruabarrei egokitzen zaizkien programak bul-  
tztatu eta sustatuko dira, etxebizitza eskura-  
tzeak.

b) Lehentasunez baloratuko dira lege honetan  
arreta berezikotzat sailkatutako familiak; horretara-  
ko, etxebizitzari buruzko kasuko araudia aldatuko  
da.

#### **15. artikulua.** Enpleguaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko ditu  
arreta berezikotzat definitutako familiek errazago  
lor dezaten lana, indarrean dagoen legedian eza-  
rriakoarekin bat eta deialdi bakoitzean definitutako  
oinarriei jarraikiz.

2. Enplegua sustatzearekin zerikusia duten  
laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan, kontuan  
hartuko da kontratatatu behar den pertsonaren ego-  
era soziofamiliarra.

3. Lanik gabe dauden pertsonen orientazio eta  
prestakuntza programetan, lehentasuna emanen  
zaie arreta berezikotzat jotako familia-unitateko  
pertsonei, eta, behar izanez gero, prestakuntza  
ekintza horietan parte hartzen dutenen inguruabar  
pertsoneletara egokitutako beka eta laguntzak  
emanen dira.

4. Landa-inguruetako familientzat nahiz arreta  
berezikotzat jotakoentzat enplegua sortzeko bidea  
emanen duten egitura enpresarialak sustatuko  
dira.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, laguntza-ildoen bidez eta behar den aholkularitza teknikoaren bidez, autoenplegua helburu duten eta lanpostuak sortzea ekarriko duten ekintza guztiak erraztuko ditu.

5. Nafarroako Gobernuak laguntzak ezarriko ditu, inguruabar soziofamiliarak kontuan hartuta, tokiko ekimenak abian jar daitezzen bultzatzeko, enpresak eta enpresa familiarren sorrera emaitza izanen dituztenak, bai eta azken horien belaunaldi-erleboia ere.

6. Autonomia pertsonala eta familiarra lortzera bideratutako proiektu teknikoak gauzatzen dituzten enpresak bultzatuko dira familia eta lanaren bateagarritasuna edo gizarte ardura susta ditzaten

7. Behar diren neurriak hartuko dira gizarteratze-proiektuak dauzkaten enpresak indartzeko. Halaber, programa integralak sustatuko dira, haien bidez errazteko bazterketa-arriskuan dauden pertsonen edo lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dauzkatenen laneratzea.

8. Lurraldean, tokiko nahiz eskualdeko egituren bitartez, profesionalei eta familia-enpresei zuzendutako prestakuntza ekintzak sustatuko dira, haien enplegarritasuna hobetzeko.

#### **16. artikulua.** Hezkuntzaren arloko neurriak.

1. Administrazio publikoak bultzatuko du onura fiskalak emateko neurriak har daitezzen, eta familiei, beren diru-sarreraren eta familia-unitateko kideen kopuruaren arabera, laguntzak emanen dizkie eskola-jantokirako eta curriculum-materialerako, bereziki kontuan hartuz arreta berezikotzat sailkatuta dauden familia-unitateak.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako termino berdinetan, administrazio eskudunek eskola-garraioaren aroko laguntzak sustatuko dituzte.

3. Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du gaikuntza eta prestakuntza jarraituko ikasketak egin daitezzen, bai eta hizkuntzen ikaskuntza ere, eta erraztasunak emanen dizkie arreta berezikotzat jotako familietako kideei.

4. Berdintasunarekin, erantzunkidetasunarekin, emozioen heziketarekin eta, bereziki, familien aniztasunarekin lotutako balioetan hezteko curriculum-esparruaren, material didaktikoaren eta ikastetxeko hezkuntza proiektuaren zeharkako atal bat izanen da. Horretarako, irakasleen prestakuntzarako planak jarriko dira abian, familia-aniztasunari buruzko kontzientzia hartzea errazte aldera.

5. Nafarroako Gobernuak hezkuntza barnehartzailea bermatuko du, ikaskuntza-beharrizanak aseko dituen eta ikasle bakoitzaren ahalbideen

garapena erraztuko duena, familien egoera desberdinak kontuan hartuta.

6. Familiarren eta ikastetxeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatuko dira, familia-eskolen bitartez. Familia-eskolak hezkuntza erkidego osoak osatuko ditu, gurasoen elkarteen parte-hartzearekin, eta topaketarako, eztabaidarako eta prestakuntzarako guneak izanen dira.

7. Orientazio- eta tutoretza-eginkizuna sustatuko dira, bai eta ikastaro berezituak ere, haien bitartez koordinazioa eta gurasoak seme-alaben garapen integralean inplikaturik egon daitezzen bideratzeko.

**17. artikulua.** Kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arloko neurriak.

1. Administrazio publikoek erraztasunak emanen dituzte familiak kirolerako, kulturarako eta aisiarako instalazioetara sartu eta haiek erabili eta goza ditzaten, eta baldintza bereziak emanen dizkiete lege honetan arreta berezikotzat sailkatzen diren familiei.

2. Horrelako jarduerak egitea familia-loturak indartzeko modu gisa sustatuko da.

3. Aisiako jarduerak bultzatuko dira, bereziki eskola-oporraldietan, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea errazteko, familien beharrezanaren arabera eta familia-unitateko kideen garapen pertsonalaren arabera.

**18. artikulua.** Gizarte zerbitzuen arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak egoki diren neurriak hartuko ditu familien beharrezanak bereziki bermatzeko, jarduketa sozial eta sanitarioak garatuz.

2. Gizarte zerbitzuen arloan, Foru Administrazioak laguntza-neurri batzuk diseinatuko ditu honakoak bideratzeko: familia-dinamika positiboa, arazoaren konponbidea eta erabakiak hartzea. Gainera, neurri horien bidez, familia-baliabideak indartu eta garatuko ditu.

3. Jarduketa orotan, adingabearen interes gorena bermatuko da, hura babesteko neurri egokiak hartuz. Neurri horiek, nagusiki, adingabearen familia-ingurunean aplikatuko dira, edo, ezinbestean, Nafarroako Gobernuaren menpeko zerbitzu espezializatuen bitartez.

4. Berariazko beharrezanak dauzkaten pertsonak artatzeko zerbitzu eta azpiegitura egokiak egon daitezzen sustatuko da, familia-etxebizitzan nahiz hartatik kanpo, araudi indardunaren arabera.



**19. artikulua.** Osasun zerbitzuen arloko neurriak.

Osasun arloan, familiaren esparrutik, prebentziorako eta ohitura osasungarriak sustatzeko politikak bultzatuko dira; horretarako:

a) Behar diren neurriak hartuko dira familia-ingurune gaixoen zaintzaileek informazio eta prestakuntza egokia dutela bermatzeko, bereziki haurren gaixotasunen kasuan. Halaber, osasunaren arloko informazioa eta arreta zailtasunak edo desgaitasunak dituzten familien arabera egokituko dira. Era berean, kontuan hartu beharko dira familian eragin berezia duten osasun-egoeretatik sortzen diren beharrezko bereziak.

b) Familiako kideetako bat beste toki batera arreta anbulatorioa nahiz ospitalekoa hartzera joaten den kasuetan, familia horiei sostengu-sistema bat ematea sustatuko da; halaber, gure foru erkidegoaz kanpo hartu beharreko tratamenduetatik heldu diren gastuak ordaintzeko sistema bat sustatuko da.

**20. artikulua.** Lankidetzaren sozio-sanitarioa.

1. Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuen nahiz osasun zerbitzuen eta horiekin lotutako beste administrazio-zerbitzuen arteko lankidetzaren eta koordinazio sozio-sanitarioa sustatuko ditu, bereziki hezkuntzaren arloan.

2. Foru erkidegoko Administrazioak begiratu du Nafarroako familiei bideratutako gizarte zerbitzuak eta osasun zerbitzuak garatzen eta egoki garatzen direla, eta horretarako haiei buruzko kalitate plan bat onetsiko du, haien eskubideak bermatuko dituena; plan horrek, zerbitzu-gutunak jasoko ditu, erabiltzaileei eta haien familiei arreta eta orientabidea emateko sistema zehatzekin, eta kexa- nahiz iradokizun-prozeduretarako eta eskerak emateko prozedurarako sarbidea emanen du, betiere herritarren parte-hartzea sustatuz.

**21. artikulua.** Teknologia berrien arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak informazioaren teknologia berrietan ikastaroak ematea bultzatuko duten neurriak hartuko ditu; ikastaroak familia-erabilera erraztera bideratuko dira, gurasoek kontrol egokia izan dezaten adingabeek haietaz egiten duten erabilera, eta hezkuntza- eta komunikazio-baliabide gisa erabil daitezkeen.

2. Halaber, Nafarroako administrazio publikoek lankidetzaren publiko-privatua sustatuko dute, adineko pertsonen teknologia berrien arloko prestakuntza har dezaten, zahartze aktibora orientatua.

3. Sustatuko da familiek ekipamendu eta teknologia informatikorako sarbidea izan dezaten, bai eta lurralde guztian datuen transmisio elektrikorako zerbitzuetakoa ere.

4. Nafarroako Gobernuak familietan esku-hartze sozial eta hezkuntzako egiteko programak sustatuko ditu, teknologia berriak osasunaren sustapenaren ikuspegitik lantzeko.

**22. artikulua.** Kontsumoaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko du familiek kontsumoaren arloko hezkuntzarako eta prestakuntzarako sarbidea dutela, ondasunen kontsumoan eta zerbitzuen erabilerean jokabide libre, arrazional eta erantzukizuneko gara dezaten.

2. Sustatuko da familia-kontsumoari buruzko jardunaldiak eta berariazko programak egin daitezkeen, eskubideak eta haietaz baliatzeko eta haiek erabiltzeko bideak ezagutzera emateko.

3. Kontsumoaren arloko informazio bide orokorren birtartez, neurri egokiak hartuko dira bermatzeko familien eskura jartzen diren produktu, ondasun eta zerbitzuek informaziorako eta publizitate objektibo, egiazko, eraginkor eta nahikorako sarbide zuzena bideratzen dutela.

4. Botere publikoek bereziki begiratu, kontrolatu eta zainduko dituzten produktu, ondasun eta zerbitzuak izanen dira familientzat oinarritzeko premia diren funtsezko zerbitzu eta ondasunak.

5. Botere publikoek lehentasunezko arreta eskainiko diete bereziki babestekoak diren kontsumitzaileen kolektiboetarako jotzen diren familiei.

**23. artikulua.** Turismoaren arloko neurriak.

Nafarroako Gobernuak familia-turismoaren garapena sustatuko du foru erkidegoaren esparruan, turismo-azpiegiturak hobetzera bideratutako laguntzen bitartez, bai eta turismoa sustatzeko jarduketan bitartez ere.

### **Bigarren atala** **Zerga arloko neurriak**

**24. artikulua.** Printzipio orokorrak

Nafarroako Gobernuak familiak babesteko zerga-neurriak ezarri eta sustatuko ditu bere eskumenen esparruan, eta koordinazio egokia bilatuko du haien eta erkidegoak familia babesteko abian jartzen dituen politika sektorialen artean.

**25. artikulua.** Zerga-onurak.

1. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du onura fiskalak ezar daitezela Nafarroako familientzat

–berariaz, arreta berezikotzat jotzen diren familientzat– pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta oinordetzei eta dohaintzei buruzko zergan.

2. Onura fiskalek lehentasunezko helburu sozio-ekonomiko gisa izanen dute ohiko etxebizitzarako sarbidea izatea, jaiotzaren babesa eta sustapena, familia-bizitzaren eta lan-arloko bizitzaren bateragarritasuna eta enpresa-familien sorrera eta mantentzea, besteak beste.

**26. artikulua.** Tasa eta prezio publikoak.

Nafarroako Gobernuak sustatuko du, bere eskumenekoak izan eta izaera kultural, hezkuntzako, sozial edo sanitarioa zamatzen dituzten tasa eta prezio publikoetan, salbuespenak eta hobariak sar daitezen haiek ordaindu behar dituztenentzat, arreta berezikotzat jotzen diren familietakoak baldin badira.

#### **Hirugarren atala Prestazio ekonomikoak**

**27. artikulua.** Familia integraziorako laguntzak.

Nafarroako Gobernuak familia-integraziorako laguntzak sustatuko ditu, aldizkakoak zein emergentzia puntualekoak, beren kargura adingabeak dituzten familia-unitateei eusten zaiela zaintzeko; horren bidez, saihestuko da haiek egoitzazentroetan sartzea edo adingabeak familia-gunetik bereiztea dakarten babes neurriak hartzea.

**28. artikulua.** Premiazko laguntzak.

Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute premiazko laguntza batzuk badaudela, ezinbestekoenak diren bizi-baliabideak galdu dituzten familiek dauzkaten premia-egoerak ebaztera bideratuak.

**29. artikulua.** Familia ugarietarako laguntzak

Nafarroako Gobernuak, urtero, familia ugarietarako zuzendutako zuzeneko edo zeharkako laguntzen deialdia bermatuko du.

**30. artikulua.** Erditzaerako edo adopzio anizkoitzaerako laguntzak.

Foru Administrazioak bermatuko du urtero laguntzetarako deialdia egiten dela erditze anizkoitzaeratan jaiotako edo adopzio anizkoitzaeratik heldutako seme-alabak dituzten familiei laguntzeko, sortzen zaizkien aparteko gastuetan laguntzeko asmoz.

**31. artikulua.** Adopzio-aurreko familia-harrera-erregatiko ordainak.

Babespean dauden adingabeak hartzen dituzten familientzat, kasua bada, konpentsazio batzuk ezarriko dira. Haien zenbatekoa hartutako adingabeen kopuruaren arabera finkatuko da, kasuan kasu, bai eta adingabe horien berariazko premien edo osasun- nahiz hezkuntza-arreta berezitik heldutako gastuen arabera ere.

**32. artikulua.** Bestelako prestazioak.

Aurreko artikuluetan jasotako laguntza ekonomikoak ezertan kendu gabe, Nafarroako Gobernuak beste prestazio ekonomiko batzuk ezarri ahaliko ditu familia-beharrizan edo -egoerak artatzeko.

### **III. KAPITULUA Neurri administratiboak. Parte-hartzea eta sentsibilizazioa**

#### **Lehenengo atala Neurri administratiboak**

**33. artikulua.** Familia-ikuspegia.

Erkidegoko administrazio publikoek beren erabaki eta jarduketan sektorialean familia-ikuspegia sartuko dute, kontuan hartuta politika sozial eta ekonomikoek familietan duten eragina, betiere azken xede dutela haien bizi-baldintzak hobetzea.

**34. artikulua.** Arauen prestaketa eta horiek familietan izanen duten eraginari buruzko azterlana.

1. Familietan edo haien multzo aipagarri batean eragin nabarmena izan dezaketen izaera sektorialeko arauak prestatzeko espedientearen dokumentazioan, berariazko erreferentzia bat jasoko da lantzen ari den araudiak familian izanen duen eraginari buruz.

2. Lege honetan aurreikusitako familia-eskubi-deetan eragin berezia duten xedapen orokorrak izapidetzeko garaian, entzunaldia emanen zaie ordezkagarritasuna duten entitate eta elkartei, parte har dezaten.

**35. artikulua.** Informazioa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, familiaren arloko organo eskudunaren bitartez, baliabideen gida bat landuko du Nafarroak familientzat. Gida hori urtero jarriko da egunean eta informazio xehakaturia eta osoa emanen du Nafarroako Gobernuak familiei eskaintzen dizkien zerbitzuei buruz.

**36. artikulua.** Departamentuarterko Batzordea.

Familia-politikaren arloan, foru lege honen printzipio eta helburuen betetzea eta familiaren babes integrala bermatzeko, xedatzen da Familiaren Departamentuarterko Batzordea izanen dela parte-hartzerako organoa. Haren eginkizunak eta osaera hurrengo artikuluetan arautu dira.

**37. artikulua.** Familiaren Departamentuarterko Batzordearen eginkizunak.

Familiaren Departamentuarterko Batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Nafarroako Gobernuak familiari buruzko politikaren arloan dauzkan helburuetan sakontzea.
- b) Familiengan eragin zuzena duten zuzendaritza-organoen ekimenak aztertzea.
- c) Ekintza-ildo batzuk proposatzea, familie laguntzek politikak garatzea bermatuko dutenak.
- d) Familiekin lotutako neurriei buruz aholkua ematea.
- e) Familia-unitateentzako baliabideak biltzen dituzten araugintza-proiektuak ezagutzea.
- f) Eduki ekonomiko eta soziala duten ikerketa-eta analisi-lanak sustatzea, Nafarroako familietarako zerbitzuen ezarpenerako lan-diagnosi gisa balia daitezkeenak.
- g) Lege honetan aurreikusitako neurrien betetzea ebaluatzea.
- h) Nafarroako Gobernuak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.

**38. artikulua.** Familiaren Departamentuarterko Batzordearen osaera. Batzorde honen lehendakaria izanen da kasuko Departamentuaren titularrak. Batzordeko kideak Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzeko titularrak izendatutako ordezkaria. Familiaren arloko departamentu eskuduneko funtzionario bat izanen da idazkaria, ahotsarekin baina botorik gabe, departamentu horretako titularrak izendatua.

**39. artikulua.** Aldizkakotasuna.

Familiaren Departamentuarterko Batzordea sei hilabetez behin bilduko da, batzordeburuak deialdia egin ondoren, eta haren antolamendu- eta funtzionamendu-arauak erregelamenduz ezarriko dira.

**40. artikulua.** Familien elkartegintza.

1. Nafarroako Gobernuak familiaren arloko elkartegintza bultzatuko du familiaren interesak ordezkatzeko bide gisa, eta komunikazio arin eta

eraginkorra ahalbidetuko duten koordinazio bideak ezarriko ditu.

2. Halaber, lankidetzabide egokiak ezarriko dira, familientzat interesekoak diren programak garatzeari begira, eta elkarte horiek betetzen duten eginkizunari buruzko ezagupena eta sentibilizazioa erraztuko dira.

3. Familiaren arloko baloreen defentsaren, babesaren eta sustapenaren arloan berriazko jarduketak egiten dituzten elkarte eta entitateak aintzatesteko neurriak ezarriko dira.

**IV. KAPITULUA****Arreta berezikotzat jotzen diren familiak.****41. artikulua.** Kontzeptua

1. Lege honen eraginetarako, arreta berezikotzat jotako familiak dira Nafarroako Gobernuak diseinatutako programa eta jarduketetan lehentasunezko arreta edo/eta berriazko arreta eduki behar dutenak, haien egoera soziofamiliarretik heldutako banakako neurriak hartzea eskatzen dutelako.

2. Nafarroako administrazio publikoek berriazko politika bat garatuko dute familia-unitate horien beharrezanetan laguntzeko.

**42. artikulua.** Arreta berezikotzat jotzen diren familia multzoak.

Honakoak izanen dira arreta berezikotzat sailkatutako familiak:

- a) Familia ugariak.
- b) Guraso bakarreko familiak.
- c) Beren kargura adineko pertsonak dauzkaten familiak.
- d) Desgaitasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.
- e) Beren kargura mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.
- f) Ahulezia-egoeran dauden familiak.

**43. artikulua.** Familia ugariak.

Familia ugaritzat hartuko dira familia ugariak babesteko araudi indardunean ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

**44. artikulua.** Guraso bakarreko familiak.

Lege honen eraginetarako, ulertuko da guraso bakarreko familia dela honakoek osatutako familia-gunea: batetik, guraso bakarra, guraso bakar hori ez denean bizitzen ez ezkontidearekin, ez ezkontza bidezkoarenaren antzeko harremana duen

beste inongo pertsonarekin ere, eta, bestetik, haren kargurako seme-alabak, baldin eta guraso bakarra bada familiari sostengua ematen dion bakarra.

**45. artikulua.** Beren kargura adineko pertsonak dauzkaten familiak.

Foru lege honen eraginetarako, honakoa hartuko da bere kargura adineko pertsonak dauzkan familiatzat: familia bat non bizi baita aurreko ahaide bat edo zuzeneko lerroz nahiz 2. gradura arteko odol-ahaidetasunez ahaidea den pertsona bat, 65 urtetik gorakoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko legedian aurreko ahaide-enganatiko gutxienekoa aplikatzeko finkatzen den kopurutik gorako urteko errentarik ez duena.

**46. artikulua.** Desgaitasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.

Foru lege honen eraginetarako, honakoa hartuko da desgaitasuna duten pertsonak dauzkan familiatzat: familia bat non bizi baita ondorengo ahaide bat edo zuzeneko lerroz nahiz 2. gradura arteko odol-ahaidetasunez ahaidea den pertsona bat, % 33ko edo goragoko desgaitasun-gradua kreditatzen duena eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko legedian desgaitasun-enganatiko gutxienekoa aplikatzeko finkatzen den kopurutik gorako urteko errentarik ez duena.

Halaber, familia bat desgaitasuna duten pertsonak dauzkan familiatzat joko da gurasoetako batek 33ko edo goragoko desgaitasun-gradua aitortua duenean.

**47. artikulua.** Beren kargura mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiak.

Beren kargura mendetasuna duten pertsonak dauzkaten familiatzat hartuko dira mendetasun-egoera aitortua duten pertsonak bizi direneko familiak, araudi indardunean ezarritakoari jarraituz.

**48. artikulua.** Ahulezia-egoeran dauden familiak.

Ahulezia-egoeran dauden familiatzat hartuko dira gizarte-bazterketako egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden familiak, beren baitan familia-indarkeria pairatzen dutenak, terrorismoaren bikti-

ma direnak, eta dauzkaten inguruabar sozio-ekonomiko bereziak direla-eta halakotzat sailkatzen direnak.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Lehen xedapen gehigarria.** Ondorengo ahaideekiko asimilazioa.

Lege honen eraginetarako, ondorengo ahaideekin asimilatuko dira tutoretza bidez, harrera bidez edo gurasoez besteko pertsona batek familia-autoritateraz jardutearen bidez lotutako pertsonak.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Aplikazioaren ebaluazioa.

Familiaren arloko organo eskudunak urtero balorazio-programak eginen ditu, legea onesten denetik aurrera, legearen aplikazioa eta ebaluazioa aztertzeko, bai eta hura esparru sektorialean egiazki ezartzeko ere.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Hobari fiskalak.

Etorkizuneko tributua eta administrazio-neurriak buruzko legeek lege honetan jasotako neurri fiskalak zehaztu eta eguneratuko dituzte.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Aurrekontuko kontusailak.

Nafarroako Gobernuak behar diren kontusailak –egoki eta nahikoak– ezarriko ditu lege hau garatu eta betetzeko.

**Azken xedapenetan lehenengoa.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, administrazioaren menpeko zerbitzu pribatizatuak sektore publikorako berreskuratzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko jabeldura, administrazioaren menpeko zerbitzu pribatizatuak sektore publikorako berreskuratzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko jabeldura egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran eztabaida dadin :

Parlamentari hau gobernu honi jabeldu nahi zaio, politika orokorrari dagokionez, administraziopean dauden pribatizatutako zerbitzuak sektore publikorako berreskuratzeari buruz.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## **Jabeldura, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokionez Nafarroak izan beharko lituzkeen eskumenei buruzkoa.**

### *EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokionez Nafarroak izan beharko lituzkeen eskumenei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamariquek, Legebiltzarreko 183. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 246/2015 eta 256/2015 epaiak eman ditu, zeinen bidez baietsi egin baititu Administrazio Zentralaren izenean Estatuko abokatuak jarritako bi errekurtsio, Nafarroako Gobernuko Barneko zuzendari nagusiak emandako bi ebazpenen

aurkakoak, zeinen bidez trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen baitziren 2014an eta 2015ean.

Bi epai horietan adierazten da Nafarroak ez daukala inolako eskumenik ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokienez, Konstituzioaren arabera Estatuak horien gaineko eskumen osoa daukalako. Halaber, epai horietan esaten da Nafarroan ez dagoela trafikoaren erregulazioari eta trafikoaren balizko murrizketei buruzko inolako eskumen historikorik ere. Epai honako esaldi honen bidez laburbil daiteke epaiaren edukia: “Azpiegituraren gaineko eskumena, zentzu zabalean, Nafarroarena da” –alegia, eraikitzea, konterbatzea, seinaleztatzea–, baina bereizketa egin behar da “azpiegitura eta azpiegituran gertatzen denaren artean,” halako moduan non, azken hori, azpiegituran gertatzen dena, Estatuaren eskumen osokoa baita.

Gauzak horrela, gure parlamentu-taldea kezkatuta dago Nafarroaren eskumen historikoei dagokienez Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak egin duen irakurketarengatik, hain baita murrizta non eskumen horiek espresuki ukatsetik gertu baitago.

Horregatik guztiagatik, eskumenen gaineko honako jabeldura hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari; zehazki jakin nahi duguna da ea Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen aipatu bi epai horiek mahai gainean jartzen duten egoera bideratzeko, bai eta ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokienez Nafarroarenak izan beharko luketen eskumen historikoak defendatzeko ere.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren jarrerari buruzkoa, Nafarroako Ubidea eta Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmena direla-eta.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren jarrerari buruzkoa, Nafarroako Ubidea eta Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmena direla-eta.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du Osoko Bilkurarako, urgentziarako izapidea baliatuz.

2013ko abuztuaren 2an, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak Nekazaritza, Elidakura eta Ingurumen Ministerioaren eta Nafarro-

ako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioa izenpetu zuten, Nafarroako Ubidea egiteko. Bertan, Nafarroaren eta Gobernu zentralaren Nafarroako Ubidearekiko konpromiso irmo eta zalantzagabea sendotu zen.

Epe luzerako azpiegitura bat da hori, zenbait hamarkadarako hain zuzen ere, inpaktu positiboa izanen duena nekazaritza- eta industria-enpleguan, eta aurreikuspenen arabera balio erantsia areagotuko duena, halako moduan non zergak areagotuko baitira. Azken batean, Nafarroako Ubidea gure herrien garapenaren aldeko apustu bat da, garapen endogenoaren aldekoa, gure ekonomia dibertsifikatzea ekarriko duena.

Jakina denez, 2012ko uztailaren 31n, Nafarroako Ubidearen hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordeak proiektuaren lehen faseko azalera ureztagarria handitzea eta bigarren fasearen taxutze eguneratua onetsi zituen. Zehazki, lehen faseak 15.275 hektarea ureztalur berri sortuko ditu Argaren eta Egaren ibaiertzetan. Bigarren faseak, berriz, 21.522 hektarea ureztatuko ditu: Une honetan, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko proiektuak idazteko lanak bukatzeaz daude.

Hori dela-eta, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako jabeldura hau egiten

dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, jakiteko zein den bere jarrera Nafarroako Ubidearen obra estrategiko honi dagokionez, eta jakiteko ea ares-tian aipatutako hitzarmenaren nondik norakoak bere egiten dituen.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan hezkidetzarako eta genero indarkeriaren prebentziorako plan bat, Nafarroako hezkuntza sisteman aplikatzeko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen presta dezan hezkidetzarako eta genero indarkeriaren prebentziorako plan bat, Nafarroako hezkuntza sisteman aplikatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan hezkidetzarako eta genero indarkeriaren prebentziorako plan bat, hezkuntza sisteman aplikatzeko.

Hezkuntza mistoaz harago doan hezkuntza arloko esku-hartze metodoa da hezkidetzeta, zeina oinarritzen baita nesken eta mutilen ahalmenak

eta banakotasunak onartzean, haien sexua kontuan hartu gabe. Batera hezte da, hortaz, pertsonen balioen berdintasunean oinarrituta hezte.

Eskola mistoaren itxurazko neutraltasuna gorabehera, egungo hezkuntza sistemak mutilentzako eta neskentzako eredu eta eginkizun sozial ezberdinak errepikatzen ditu, hainbat bidetatik eta modu ikusezinean, eta hartara errepikatu egiten dira gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriazko botere-harremanak. Halatan, curriculum-edukietan, irakasleen eta ikasleen arteko interakzioan, testu liburuetan, ikasgelaren kudeaketan nahiz ikastetxearen beraren kudeaketan, kontuan izanda ekipamenduen alderdi arkitektonikoak edo kirol instalazioak edo laborategiak, agerian gelditzen dira kultura androzentrikoaren funtsezko zenbait alderdi, halako moldez non estereotipo sexisten transmitzaila eta berregile bihurtzen baitira.

Asko dira eman diren aurrerapausoak, baita hezkuntzaren arloan ere, baina azken urteotan atzerapauso handiak eman dira berdintasunaren arloan, eskola-curriculumetik Herritartasunerako Hezkuntzaren ikasgaia kendu izanaren edo ikasleak sexuen arabera bereizten duen hezkuntza lege defendatu izanaren erruz.

Gure erkidegoan, parlamentu honek aurreko legegintzaldian bazter utzi zuen Berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko plan bat, zeinak, berdintasunaren arloan lan egiten duten elkarten parte-hartzea aintzat ez hartzeaz gain, ez baitzituen betetzen gizarte berdinezaleago eta justuago bat eratzerako bideratutako plan bati eskatu beharreko helburuak.

Une honetan, gure hezkuntza sistemak ez dauka inolako tresnarik emakumeen eta gizonen

arteko berdintasunik eza amai dadin lan egiteko eta genero indarkeriarekin nahiz jatorrian sexismoa daukaten indarkeria guztiekin amaitzen laguntzeko.

Azkenaldiko azterlanek erakusten dute neskatilen eta mutikoen eta nesken eta mutilen arteko harremanak asimetrikoak direla oraindik ere, abusuaren oinarritutako egoera ugari egoten direla eta sexismoa eta genero indarkeria nerabeen eta gazteen garapenean eragiten ari diren errealitateak direla.

“Genero indarkeriaren pertzepzioa nerabezaroan eta gaztaroan” izeneko txosteneko datuen arabera, hiru gaztetik batek uste du ekidinezina edo onargarria dela egoera batzuetan bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea, bere familia edo lagunak ikus ditzan eragoztekoa, lana edo ikasketak egin ditzan debekatzea edo hari zer egin dezakeen eta zer ez esatea.

Hezkuntza Departamentuak Nafarroan urgentziaz lan egin behar du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero indarkeria prebenitzeko. Horrek ezinbestean dakar

aurrera egitea egungo eskola mistoa hezkidetzarako eskola bihurtzeko, erreferentzia gisa izanen dituen pertsonak eta pertsonen identitate bakoitzaren garapena; eskola justuago bat denentzat, non diferentziek ez duten ekarriko genero, hezkuntza eta gizarte desberdinkeriarik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz presta dezan hezkidetzarako eta genero indarkeriaren prebentziorako plan bat, Nafarroako hezkuntza sisteman aplikatzeko. Planak hezkidetzarako eskolaren eredu sakonduko du, estereotipoak baztertzeko lan eginen du, hezkuntza afektibo-sexuala nahiz prebentziorako beharrezkoak diren baliabideak –baina baita biktimei laguntzeko beharrezkoak direnak ere– jasoko ditu, eta hezkuntza erkidego osoa inplikatu du.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketara programa bat aurkez dezan N-121-A errepidean hobekuntzak egiteko.**

### *LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketara programa bat aurkez dezan N-121-A errepidean hobekuntzak egiteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Iruñetik Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko mugara doan N-121-A errepidea da gure erkidegoan trafiko-gorabehera gehien daukan errepideetako bat. 62,87 kilometroko errepidea da, iragaitzazko trafiko astunak Frantzia sartzeko eta handik irteteko bide nagusi gisa baliatzen duena. 2014an, batez beste 9.000 ibilgailutik gora igaro ziren bertatik egunero; horietatik, 2.400 inguru kamioiak ziren.

Nafarroako Gobernuak diru asko inbertitu du errepide horretan, 1993an Belateko tunelaren obrak hasi zirenetik, lurraldeak daukan zailtasun



orografikoak gainditzeko xedez eginiko zenbait hobekuntza-lanetan. Halere, badago kontsentsu politiko eta sozial bat: errepide hori hobetzeko inbertitzen jarraitu beharra dago; kasu batzuetan, tunelei buruzko araudia gaurkotu egin delako, eta beste batzuetan, berriz, trafikoa areagotzeak errepidea hobetzen jarraitzera behartzen duelako.

Orain dela gutxi egindako agerraldi batean, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manuel Ayerdi jauna zuhur agertu zen bere departamentuak errepide horretan neurri zehatzak hartzeari dagokionez. Halere, gauza jakina da datozen urtetan Europan zeharko errepide-sareko tunelak nahitaez egokitu beharko direla 2004/54/EE Zuzentarauaren betekizunetara.

Hori dela-eta, Gobernuak arlo hain garrantzitsu batean aurrera eraman beharreko jarduna bultzatzeko asmoz, eta trafiko-ardatz horrek Nafarroarentzat daukan garrantziaz jabetuta, honako mozio hau onartu eta izapidetu dadin eskatzen dut:

1. Gobernua premiatzen da Parlamentu honetan lehenbailehen aurkez dezan N-121-A errepide-

an mota guztietako hobekuntzak egiteko programa bat, legegintzaldi honetarako egutegi eta guzti, bai eta hurrengo urteotan egin beharreko inbertsioen gutxi gorabeherako balorazio bat ere.

2. Gobernua premiatzen da inbertsio horien artean sar dezan N-121-A errepide osoa hiru erreiko bihurtzea, ahal den neurrian beste herrialde batzuetan dagoen 2+1 errepide-diseinua aplikatuz; alegia, ibilgailuen aurreratzeak baimenduz horretarako erreietan soilik .

3. Gobernua premiatzen da al bait azkarren has ditzan, 2016an, Belateko eta Almandozko tunel berriak egiteko proiektu teknikoak agintzeko beharrezkoak diren aurretiazko aztelanak osatze aldera egin beharreko zundaketa geoteknikoak.

4. Gobernua premiatzen da bere jarduna hala-ko moduan planifika dezan non 2019an gutxienez ere hasiak egonen baitira Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko obrak.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langabeziaren aurkako talka-plan bat taxutu dezan, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoaren garapen orekatua sustatzeko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita langabeziaren aurkako talka-plan bat taxutu dezan, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoaren garapen orekatua sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langabeziaren aurkako talka-plan bat taxutu dezan, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan garapen orekatua sustatuko duena, bereziki langabeziak gehien zigortutako eskualdeetan, gertatutako berdintasunik ezak arintzeko eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzeko.

Gure erkidego osoaren garapen orekatu bat sustatzeko xedez, Nafarroako Gobernuak ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzera bideratutako bere ekimena garatu eta jarraitu behar du.

Nafarroako Foru Komunitateak lurralde-plangintzako politika- eta tresna-sorta bat aplikatzen du, egoiliarren berdintasun ezak murriztera bideratuak. Halatan, Lurralde-plangintzako Sistema bat eta Lurralde Estrategia bat daude, eta horien printzipioak oinarritzen dira lehiakortasunean, lehiakortasuna merkatuetan aberastasun handiagoa sortzeko eta errenta areagotzeko ahalmen gisa hartuta; gizarte-kohesioan edo desberdintasun sozioekonomikoak desagerraraztean eta ahultasun-egoerak detektatzean; eta, azkenik, jasangarritasunean, zeinak berekin baitakar ez konprometitzea etorkizuneko belaunaldien baliabide naturalak, bizi kalitatea eta gizarte-kohesioa. Ardatz soziala gizarte-babeseke sistema ezberdinetan datza, hala nola hezkuntzan, pentsio-sisteman, osasungintzan, gizarte zerbitzuetan, enpleguan eta etxebizitzan.

2015eko maiatzeko enplegu-datuei buruz Nafarroako UGT eta CCOO sindikatuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Behatokiarentzat egindako azterlanean ikertu egiten da langabeziak Nafarroako eskualde ezberdinetan izandako eragina, eta honako ondorio hauek ateratzen dira:

Lehenik eta behin, emaitzek erakusten dute krisiak Nafarroan izandako eragina, langabeziak ari garelarik, ez dela inolaz ere homogenea. Nafarroan, 2015eko maiatzean, batez besteko langabeziataza % 14,92koa zen, baina zenbait eskualdetan langabeziaren inpaktua % 28tik gorakoa zen; esate baterako, Etxauribarren eta Cascante aldean.

Gainera, erreferentzia gisa 2008. urtea hartuz gero, Nafarroan langabezia % 100,5 igo dela kalkulatu da, eta Lodosa (% 163), Mendabaldeko Sakana (% 162) eta Corella (% 148,6) dira igotzerik handiena izan dutenak.

2015eko maiatzean iraupen luzeko langabeziak –urtebetetik gorakoa– % 40,17 egiten du guztira erregistratutako langabeziaren barruan. Hortaz, hamar langabetutik lauk urtebete baino gehiago daramate langabezian. Berriro ere ikusten da zenbait lekutan handiagoa dela langabeziaren eragina. Batez bestekotik gora daude Cascante, Altsasu edo Agoizko eskualdeak, non langabezian urtebete baino gehiago daramaten pertsonen ehunekoa % 45etik gorakoa baita. Nahiz eta langabezia

2015ean pixka bat jaitsi den oro har, iraupen luzeko langabeziaren proportzioak gora egiten segitzen du.

Iraupen luzeko langabeziaren igoera 2008tik hona larria eta orokorra izan dela onartuta ere – % 204koa, hain zuzen ere–, azpimarratu egin behar da are larriagoa izan dela Nafarroa hegoaldeko zenbait tokitan. Adibidez, Corellan, non igoera % 440koa izan baita; Lodosan, % 392koa; Sakanan, % 380koa; Mendabian-Vianan, % 358koa, edo Castejonan, % 303koa.

Datu horiek agerian jartzen dute enpleguari dagokionez lurraldeen artean dagoen berdintasunik eza, eta berdintasuna gizarte-kohesiorako funtsezko elementu bat da. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da eskualdeen arteko urruntze-gradu hori murriztea; batetik, gizarte-haustura ez areagotzeko, eta bestetik, Foru Komunitatearen lurralde-haustura ekiditeko.

Beraz, aukera-berdintasuna ziurtatze aldera eta gure erkidegoa balioztatze aldera Nafarroako Gobernuak lurralde-desoreka nagusiak zuzentzeko daukan betekizunari erreparatuta, parlamentu-talde sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean langabeziaren aurkako talka-plan bat taxutu dezan Nafarroako eragile ekonomiko eta sozialekin adostuta, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoaren garapen orekatua sustatuko duena; bereziki, langabeziak gehien zigortutako eskualdeena, gertatutako berdintasunik ezak arintzeko eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza indartzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berariazko funts ekonomiko bat konprometi dezan, plan horretan ezarritako helburuei ekiteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Helburu horiek bat etorri beharko dute Enpleguari buruzko Europako Estrategiarekin, hala nola laneratzeko gaitasuna hobetzea, enpresa-espirtua garatzea, langileen egokitze-gaitasuna sustatzea eta aukera-berdintasuneko politika indartzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Eleduna: María Chivite Navascués

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza bermatzeko plan bat presta dezan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, 14/2015 Foru Legearen aplikazio-eremua berma dezan, aipatu legea aplikatzeko plan estrategiko bat gara dezan eta toki entitateek emakumeei laguntzeko ematen dituzten zerbitzu guztiak mantentzea berma dezan.**

*PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxebizitza bermatzeko plan bat presta dezan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, 14/2015 Foru Legearen aplikazio-eremua berma dezan, aipatu legea aplikatzeko plan estrategiko bat gara dezan eta toki entitateek emakumeei laguntzeko ematen dituzten zerbitzu guztiak mantentzea berma dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Indarkeria matxistak arazo larri bat dira, ez soilik emakumeentzat eta haien seme-alabentzat, baizik eta gizarte osoarentzat eta berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko ere (Nazio Batuek, 1986). Eta hortaz batera egin behar diegu aurre: denon –gizonen eta emakumeen– arazo bat da.

Giza eskubideen errespetua oinarritzko baldintza bat da gure herriaren garapenerako; horrenbestez, Estatuaren betebeharra da emakumeen eta haien seme-alaben eskubideak babestea eta bermatzea. Halere, aurrekontu-murrizketek azke-

naldian larriki mehatxatu dituzte berdintasunaren arloko politika publikoak oro har, eta indarkeria matxistaren aurkakoak zehazki. Ikusi dugu arian-arian eraitsi direla berdintasun politikak, eta eraste horrek eragin zuzena izan du emakumeen giza eskubideetan eta, beraz, gure sistema demokratikoan.

• Orain dela gutxi, 2015eko ekainean, legedian eta praktikan emakumeak pairatzen duen diskriminazioaz aritzeko Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluko lantaldeak adierazi zuen, bere azken txostenaren bidez (A/HRC/29/40/Add.3), Espainiak suspenditu egiten duela genero berdintasunaren arloan. Dokumentuak argi uzten du ezen Espainia, aurrera egitetik urrun, atzeraka egiten ari dela argi eta garbi, Espainiak arlo asko eta askotan lan egin behar duela irmotasunez, gai hori dela-eta sinatutako nazioarteko tratatu ugariak betetzen direla bermatzeko.

Nazio Batuen Erakundeak ateratzen dituen ondorioak eztabaidaekin dira: atzerakada “ez da soilik krisi ekonomikoaren ondorio ekidinezin bat, ezpada Gobernu honek aplikatzen duen eta krisiak guztiz justifikatzen ez duen austeritate-politikarena ere bai.” Nazio Batuek diotenez, atzerakada kezkarria gertatzen ari da emakumeen ahalduntze sozial eta ekonomikoaren arloan, eta autonomia erkidego askotan gizarte zerbitzuen eta berdintasunaren arloko aurrekontua murriztu izana nabarmentzen dute; murrizketa horiek ahuldu egin dituzte emakumeei eta haien kargurako senitartekoei zerbitzu ematen dieten erakundeak. Giza eskubideen nazioarteko nahiz erregioko eragileek beren kezka adierazi dute austeritate-neurrien ondorio negatiboengatik; zehazki, talderik ahulengan –emakumeak barne– eragiten dutenengatik.

Autonomia erkidegook konpromiso zehatzak har ditzakegu, eta hartu behar ditugu, gai honetan; halatan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditugu, bakoitzak bere eskumenen esparruan, Nazio Batuek egindako gomendioak betetzeko.

Bestalde, zerbitzuen kalitateari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen erreforma indarrean sartzea mehatxu handia da zerbitzu horiendako; hori dela-eta, hartu beharreko neurriak hartu behar dira zerbitzuak ematen direla eta udalek ematen dituztela bermatzeko.

Halaber, gizarte zibila eta esku hartzen duten profesionalak ohartzen dira beharrezkoa dela babes-agindu bat egotea, indarkeria pairatu duten emakumeek dauden laguntzetako asko jaso ahal izan ditzaten. Gogorarazi behar dugu eraildako emakumeen herenak soilik zeukala jarria salaketa bat generoko indarkeria zela-eta. Horregatik, Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasuna eman diezaien ez soilik babes-agindu bat edo epai irmo bat egoteagatik biktima izaera onartu zaien Eskubide Sozialetako Departamentuaren menpeko etxebizitza babestu bat lortzeko, emakumeei, ezpada indarkeria matxisten biktima diren emakume guztiei ere, salaketarik jarri ez badute ere; eta hori guztia berehala egin dadin.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Etxebizitza berehala bermatzeko plan bat presta dezan, gizarte edo/eta berdintasun zerbitzu espezializatuek balorazioa egin ostean, indarkeria matxistaren biktima izaera duten emakume guztientzat, babes-agindua dagoen ala ez alde batera utzita.

Etxebizitza bermatzeko plan horrek jasoko du Nafarroako Komunitateak behar diren hornidura guztiak dituen etxebizitza baterako sarbidea erraztuko duela, gehienez ere hilabeteko epean, kasuko gizarte edo/eta berdintasun zerbitzu espezializatuek eskabidea egiten dutenetik aitzina.

2. Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aplikazioa bermatzea emakumearen aurkako indarkeria-mota orotarako, Emakumearen kontrako diskriminazioa desagerrarazteko Batzordeak bere 19. gomendio orokorrean eta Emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean –hots, Istanbulgo Hitzarmenean, zeina Espainiak berretsi egin baitzuen– exijitutakoarekin bat.

3. Plan estrategiko bat berehala garatzea, behar adina baliabidez hornitua, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aplikatzeko. Hartara, lanmahai bat eratuko da (mugimendu feministak, toki-ko eragileek eta genero indarkerian aditu direnek parte hartzeko tresna egonkor eta eraginkor gisa), orain arteko politikak ebaluatzeko eta proposamen berriak egiteko (programa-akordioaren 11. puntua).

4. Eta, azkenik, autonomia erkidegoek 2015eko abenduaren 31n beren gain hartuko dituztenez gizarte zerbitzuen gaineko eskumenak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeko bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateek emakumeei laguntzeko ematen dituzten zerbitzu guztiak mantentzea berma dezan, toki entitate horiei utziz emakumeei laguntzeko lehendik ematen zituzten zerbitzu guztiak mantentzea, zerbitzu horien zuzeneko kudeaketa publikoaren aldeko apustua eginez eta horiek guztiak aktibatuta mantenduko direla bermatuz.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nekazaritzako Ustiapenen Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta martxoaren 22ko 3/2007 Berdintasunaren Lege Organikoa landu ditzan eta horietan sakon dezan, emakumeek nekazaritza sektorean erabateko sarbidea izan dezaten sustatze aldera.**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nekazaritzako Ustiapenen Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta martxoaren 22ko 3/2007 Berdintasunaren Lege Organikoa landu ditzan eta horietan sakon dezan, emakumeek nekazaritza sektorean erabateko sarbidea izan dezaten sustatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeetako eledunek, legebiltzar honen Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, 2015ko urriaren 8ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2007ko abenduaren 18ko 62/136 Ebazpenaren bitartez, ezarri zuen urriaren 15ero Landa Emakumeen Nazioarteko ospatuko dela; hori dela eta, 2008tik, urtero ofizialki ospatu izan da. Adierazpen horrek, beste eginkizun batzuen artean, aitortzen du "landa emakumeek, horien barne direla emakume indigenak, izan dituzten eginkizun eta ekarpen erabakigarriak nekazaritzaren eta landa eremuen sustapenean, elikadura-segurtasunaren hobekuntzan eta landa eremuen pobrezia-aren desagerpenean."

Espainiako Estatuan 6 milioi inguru emakume bizi dira 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, landa eremukotzat jotakoetan, eta Espainiako populazio osoaren % 15 egiten dute. Nafarroan, 2013an, jarduera nagusiko 3.763 nekazari zeuden (hau da, haien jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza sektorea dutenak), eta horietatik 647 emakumeak ziren. Halaber, jasota dago nola dagoen banatuta profesional horien guztien titulartasuna. Hau da, sozietatearen titulartasuna, titulartasun fisikoa eta titulartasun partekatua. Hemen aipatu beharra dago azken figura horretan 2013an 3 ustiategi baizik ez dagoela inskribatuta. ·

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Ríoko 1992ko Adierazpenean, eta haren 2112 programan, aitortu zen landa eremuko emakumeak daukan eginkizun erabakigarria, bai garapen produktiboan eta nekazaritzaren zein abeltzaintzaren garapenean eta natur baliabideen kontserbazioan, bai, oro har, ingurumenaren kontserbazioan ere.

Agenda 21ek aipatzen du nolako eginkizun garrantzitsua duen emakumeek ekosistema nazionalen kudeaketan eta mantentzean eta ingurumenaren endekatzearen aurkako borrokan; hori dela eta, premiatzen da politika batzuk ezar daitezzen, segurtatzeko emakumeak sarbidea izanen duela kudeaketa politiko eta ekonomikora, eta finka dadin landa emakumearen eskubidea, landa-jabetzak edukitzekoa, mikroredituetarako bidea emanez, nekazaritza-sargaiak eskuratzeko eta teknologia egokien transferentziarako. ·

Gaur egun, landa ingurunean bizitzeak jada zailtasun handiak dakartza. Landa eremuetan dagoen egoerak bereziki eragiten die emakumeei, eta haien eskubideak mugatzen ditu. Horrek zenbait arazo dakarzikie: lan egiteko aukerarik eza, emakumeen langabezia-tasa handia, prestakuntzarako sarbide mugatua, isolamendua eta komunikazio zailtasunak, zerbitzu eta azpiegituren eskasia, kultura patriarkala, indarkeria matxista ikusezin bilakatzea eta abar.

Landa emakumeak kolektibo heterogeneo bat dira, landa garapenerako ezinbestez aintzat hartzekoa, zeren eta gaitasun eta aukera desberdinak

baitauzka. Hala eta guztiz ere, guztiek zailtasunak eta landa munduaren ahanzturak partekatzen dituzte; izan ere, horien ondorioz garapen ekonomiko eta pertsonalerako aukera gutxi daude, eta horrek eragozpen handiak dakartza prestakuntza eta kualifikazio profesionalak aprobetxatzeari begira. Emakume askok ez dute beren herrietatik alde egin nahi, eta nekazaritza tradizionalaren osagarri gertatzen diren enpresa-jarduerak abiatzen dituzte. Beste batzuek hirietara joatea erabakitzen dute, eta beren herriekiko deserrotze bat gertatzen da; horrekin batera, areagotu egiten da herri horien populazio-galera. Emakumeak, gazteekin batera, landa exodoaren protagonistak izan dira, eta exodo horrek zailago egiten du herrien garapena.

Gure ustez, landa emakumeen nazioarteko eguna ez litzateke adierazpen instituzional huts batera mugatu beharko; aitzitik, garapen jasangarria lagunduko duten –eta, horrenbestez, landa populazioen bizi-maila eta -kalitate handiagoak sustatuko dituzten– programa eta proiektuak dinamizatu behar dira, landa emakumearen bizimodu egokia bermatzeko. Eta horretarako, zalantzan jarri behar dira sistema ekonomiko eta produktiboa.

Ekonomiaren egungo esparruan, aurrerapen ekonomikoa neurtzen da ikusiz zenbateko gaitasuna daukan herrialde batek merkatuan duen jardueraren ekonomikoaren eskala areagotuko duten eta produkzio faktoreen efizientzia hobetu, espezializatu eta hedatuko duten politikak aplikatzeko. Logika sinplifikatzaile eta murriztaile horren pean, adierazle ekonomiko konbentzionalak ez dira gai aberastasun gisa kontabilizatzeko jasangarritasunaren eta ongizatearen ikuspuntutik ezinbestekoak diren prozesu, ondasun eta lanak, hain zuzen ere ugalketa-lan soziala deitu ohi dena. Egungo logikaren pean, endekatzea eta haren erreakzioak aberastasun gisa kontabilizatzera ere iristen da; hartara, gerrekin, gaixotasunekin edo ingurumensuntsipenarekin lotutako negozioak aberastasuntzat hartzen dira, txanpon-trukeak baizik aintzat hartzen ez duen adierazle bati jarraituz.

Emakumeak gizonen menpe egoteak eta naturaren esplotazioak logika komun bati erantzuten diote: menderatzearena eta bizitzaren –gizakiena zein naturarena– balio-kentzea. Historian zehar patriarkatuak –azken mendeetan kapitalismoari estuki lotuta egon da– emakumeak eta natura menderatu eta esplotatu ditu, emakumeen lanak eta jakintzak baliatuz, ikusezin bihurtu dituen aldi berean.

Mendebaldeko mundu-ikuskerari eusten dioten kontzeptu gako ugariaren berrazterketa kritikoa egin behar dugu: zientzia, ekonomia, lana, produk-

zioa... Eta, errealtateari buruzko beste begirada kritiko batzuekin batera, laguntza eman behar dugu paradigma berri batera iristeko, non planetaren mugak geure eginen ditugun eta feminismoak erabilitako harreman-moduek eta politikak funtsezko papera jokatu duten. Honakoen moduko gaietatik hasita:

– Borrokagai hartzea indarkeria matxista, sexuaren arabeko lan-banaketa eta familia-eredu tradizionalak. Aldaketarako, pertsonen ongizatean kokatu behar da interesgunea, eta horretarako, onartu behar da ez direla emakumeak, bakardadean, gizarte-erproduktzioaz arduratu behar dutenak –baita landa munduan ere–, baizik eta gizonak eta emakumeak, eta gizartea oro har.

– Desazkundera, arlo materialean. Materia, energia eta hondakin gutxiagorekin bizitzen ikastea da gakoetako bat, landa munduari ere eragiten dion –asko, gainera– krisi ekonomiko eta sozial honetatik ateratzeko.

– Ekoizteko beste modu bat, inguratzen gaituzten ekosistemekin bateragarria, eta fiskalitate ekologikoa eta zuhertasunaren printzipioa aplikatzea.

– Lurraldean politika zalantzan jartzea; lurraldea begiratzean eta ekonomia berrantolatzean beren bokazioak errespetatuz jokatu behar dugu. Tokian tokiko eta eskualdeko merkatuak sustatu behar ditugu, eta hurbileko banaketa, bai eta elikagaien eta energiaren arloko subiranotasun-proiektuak.

– Lan-denboren berrantolamendua. Lanaldia laburtzea, eta, aldi berean, beharrezkoak diren lan-denbora guztiak (ordaindua eta etxeakoak) banatzea; horrek bidea eman lezake gizarte desberdin bat artikulatzeko, justuagoa eta berdintasun handiagokoa.

– Aberastasunaren banaketa. Lurraren banaketa gai erabakigarria izanen da etorkizunean. Egin beharrekia izanen da lurra kentzea nekazaritza industrialari, espekulazio urbanistikoari eta asfaltoaren eta porlanaren hedapenari, eta hura tokian tokiko sistema agroekologikoen eskura jartzea.

– Aberastasunaren birbanaketa ekitatibo baten alde apustu egitea. Horretarako, zerbitzu publiko sendoak behar dira, fiskalitate progresibo bat eta gastu publikoaren lehentasuna ongizatera bideratuta egotea: osasunera, hezkuntzara, herritarren babes eta zaintzara. Gainera, emakumeek erabakiguneetan eta gizarte-transformazioko guneetan parte har dezaten sustatu eta erraztu behar da, baita landa ingurunean ere, non bereziki baitauka ordezkari urria.

Premiazkoa da bizia eusteari atxikia dagoen ekoizpen bateranzko urratsak egitea, eta bizi horixe erdigunean jarriko duen ekonomiako eta gizarte-arloko antolamendu-eredu bateranzko urratsak ere egitea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nekazaritza-ustiaketan Titulartasun Konpartuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa landu eta sakondu ditzan, Nafarroan arau eta neurri batzuk oneste eta aplikatze aldera, emakumeak egiazki nekazaritza sektorean sartu eta jarduera ekonomiko horretan iraun dezaten.

2. Gara dezan, ahalegin bereziz landa-ingurunean, zainketa-lanetarako sare publiko bat (haur-

tzaindegiak, eguneko zentroak eta abar), emakume nekazari eta abeltzainek ez diezaieten beraiek bakarrik erantzun behar izan gizarteak emakumei esleitzen dien zainketa-roletik eratorritako bete-beharrei. Zerbitzu horiekin batera, komunikazio-, transmisio- eta sentsibilizazio-kanpainak egin beharko dira erantzunkidetasun arduratsuz baliatzeak familia osorako eta gizarterako dauzkan urgentziari eta onurei buruz.

3. Emakume nekazari eta abeltzainen estatutu bat taxutzea, Nafarroan norabide horretan lan egiteko urgentziazko lanabes gisa, esate baterako, nekazaritzarako laguntzen (NPB, BAP) banaketan emakume nekazari eta abeltzaintzako ekintza positiboko neurri gehiago zehaztu eta gauzatzeko.

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentariak: María Solana Arana, Dabid Anaut Peña, Teresa Sáez Barrao eta Marisa de Simón Caballero

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen Kunduzeko ospitalearen aurkako bonbardaketa dela-eta nazioartean egindako gaitzespenarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen Kunduzeko ospitalearen aurkako bonbardaketa dela-eta nazioartean egindako gaitzespenarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak gertakariak iker daitezzen eskatzen du, bereziki larriak direlako; izan ere, gerra eta okupazioa urte askoan pairatu duten Afganistango biztanleak artatzen dituen ospitale bat izan da erasoaren jomuga.”

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Foru erkidegoaren funtsentzat Audenasaren administrazio kontseiluek izan duten kostuari eta ordaindu diren kontzeptuei buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Foru erkidegoaren funtsentzat Audenasaren administrazio kontseiluek izan duten kostuari eta ordaindu diren kontzeptuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Audenasako Administrazio Kontseilua aldatu da berrikitan; halatan, Miguel Sanz Sesma lehendakari zuenaren ordeztatu da Mikel Aranburu Urtasun kontseilaria lehendakari izanen duena. Ikusirik kontseilu berriko kideek ez dutela dietarik kobratuko bertan parte hartzeagatik, honako hau jakin nahi dut:

Audenasako Administrazio Kontseiluek zenbateko kostua izan dute 2004tik aitzina funts publikoentzat? Zer kontzeptu direla-eta ordaindu da diru hori?

Iruñean, 2015eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea



## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Erriberan enpleguaren egoera hobetzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.**

*LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Erriberan enpleguaren egoera hobetzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tuterako alkateak orain dela gutxi egin zizun bisitan, zuk adierazi zenuen kezkatuta zaudela Erribera dela-eta, uste baituzu langabeziak eta murrizketek bereziki zigortutako eskualdea dela, eta arreta bereziarekin begiratuko diozula adierazi zenuen.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu, epe motzean eta epe ertainean, langabeziak Erriberan eragindako egoera okerra hobetzeko?

Tuteran, 2015eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

## **Galdera, pertsona transexualen arreta integralari buruzko 12/2009 Foru Legeari buruzkoa.**

*VIRGINIA ALEMAN ARRASTIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Virginia Aleman Arrastio andreak aurkeztutako galdera, pertsona transexualen arreta integralari buruzko 12/2009 Foru Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Virginia Aleman Arrastio, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Ikusita programa-akordioan apustu egiten dela Pertsona transexualei arreta integrala emateari buruzko 12/2009 Foru Legea betearazi eta hobetzeko:

Zure departamentuak foru lege hori garatzeko zer urrats egiteko asmoa du?

Iruñean, 2015eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Virginia Aleman Arrastio

## **Galdera, Sodenak “Caviar Per Sé” enpresan izandako partaidetza ekonomikoari buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak “Caviar Per Sé” enpresan izandako partaidetza ekonomikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

Sodenak 2008an jarri zuen abian Caviar Per Sé enpresan zeukan parte-hartze ekonomikoa, milioi askoko galerekin bukatu dena. Enpresa

horrek Esako arrain-haztegia berrireki zuen, gaizkata-hazkuntzarako eta kabierra ekoizteko. Sodenak 8,77 milioi euro jarri zituen, eta espero ziren fruituak eman gabe denbora batez jardun ostean, enpresa itxi egin behar izan zen, eta egun likidazio-prozesuan dago.

Salmentarekin, finantzatzaileek –Sodena barne– ez dute egindako inbertsioko euro bakar bat ere berreskuratu –sozietate horrek hala baieztatu du–, dena joan baita zorraren parte bat estaltzera.

Kontuen Ganberak txosten batean salatu zuen Sodenaren finantza-laguntza handiagoa izan zela enpresan zeukan partaidetzaren arabera zegokiona baino.

Nola iritsi ahal izan gara Sodena sozietate publikoak 8,77 milioi euro galdu duen egoera honetara?

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu kapital publikoko halako galerak izateko arriskua minimizatzeke?

Iruñean, 2015eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Galdera, babesgabetasun moderatu edo larriko arriskuan dauden adingabeen egoerari buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, babesgabetasun moderatu edo larriko arriskuan dauden adingabeen egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Nuria Medina Santosek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Eskubide Sozialetako lehendakariordeak agerrialdia egin zuen Eskubide Sozialetako Batzordean iragan irailaren 16an, bere departamentuaren helburuak eta lan ildoak azaltzeko. Agerraldian aitortu zuen gure erkidegoan "bereziki delikatu" dela haurrentzako laguntzaren eta babesaren egoera. Datu oso kezkarriak eman zituen:

– Oinarrizko Osasun Laguntzak adingabeen 46 espediente igorri dizkio Nafarroako Gobernuari, babesgabetasun moderatu edo larriko egoeran daudenak, ustez; eta une horretara arte baloratu gabe zeuden.

– Larri gisa kalifikatutako 53 espediente; une horretara arte ez zen hartu inolako neurririk horiei zegokienez.

Gaur den egunean hartu al da erabakirik babesgabetasun moderatu edo larriko arriskuan dauden eta espedienteak baloratzeke edo ebazteke duten adingabeen egoera konpontze aldera?

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

---

## **Galdera, etxebizitzaren alokairu publikoaren sustapena dela-eta hipotekek ukitutakoaren plataformei azaldutakoaren edukiari buruzkoa.**

**LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitzaren alokairu publikoaren sustapena dela-eta hipotekek ukitutakoaren plataformei azaldutakoaren edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Hedabideetan agertu denaren arabera, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak adierazi zuen, Hipotekek kaltetutakoaren plataformarekin orain dela gutxi egindako bilera batean, Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren alokairu publikoaren sustapenari eman nahi diola lehentasuna. Albiste hori ikusita, gai horri buruzko honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

– Zein da zioen azalpenean adierazitako gaiari dagokionez Hipotekek kaltetutakoaren plataformari bilera horretan azaldutakoaren eduki zehatza?

– Gogoan al darabilzue Etxebizitzarako 2016ko aurrekontuan kontusail berri bat sortzea alokairurako etxebizitzaren sustapen publikorako? Hala baldin bada, zer zuzkidura ekonomiko izanen du?

– Zein izanen litzateke, lehen hurbilketa batean, alokairurako sustapen publikoaren aurreikuspena 2016, 2017, 2018 eta 2019rako? Eta zein lurralde-banaketa?

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, Nafarroan ETB hartzeari buruzkoa.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan ETB hartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak idatziz erantzun diezaion.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko 2009ko uztailaren 3ko Lankidetzarako Protokolo Orokorrean honako hau ezarri zen: "ETBren emanaldi guztietan errespetatuko dira Nafarroako errealitate politiko, sozial eta instituzionala, haren ikurrak eta nortasuna, indarrean dagoen lege-antolaketari eta Konstituzio Auzitegiak emandako uztailaren 29ko 94/1985 Epaia jarraituz. Nafarroako Foru Erkidegoa Euskal Autonomia Erkidegotik eta haren lurralde historikoetatik aparteko errealitate desberdin bat bezala aurkeztu eta irudikatuko da ETBko profesionalek idatzitako informazioetan, haien aurkezpenetan eta irudi grafikoetan. Era berean, ahalginak egingo dira Nafarroako Foru Komunitateko sentiberatasun politiko eta ideologiko desberdinak aurkeztu eta errespetatzeko ETBk berak ekotzitako telesaio guztietan."

Eskatuko al dizkio Nafarroako Gobernuak errespetu-exijentzia horiek Eusko Jaurlaritzari, ETB Nafarroan ikusi ahal izatearen arazoa azterzen denean?

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Galdera, azken hamabost urteetan segurtasun kidego desberdinek Nafarroan atxilotutako pertsonen eta argitutako delituen buruzkoa.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, azken hamabost urteetan segurtasun kidego desberdinek Nafarroan atxilotutako pertsonen eta argitutako delituen buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak idatziz erantzun diezaion.

1. Segurtasun kidegoetako bakoitzak zenbat pertsona atxilotu ditu Nafarroan azken hamabost urteetan, leporatu zaien delitu-motaren arabera?

2. Segurtasun kidegoetako bakoitzak zenbat delitu argitu ditu Nafarroan azken hamabost urteetan, delitu-motaren arabera?

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

**Galdera, gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta erantzuteko eta errenta emateko epeari buruzkoa.**

**ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta erantzuteko eta errenta emateko epeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta, zein ari da izaten erantzuteko eta errenta emateko epea, hala eskaera berrien nola luzapen-eskaeren kasuan?

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa.**

**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kontuen Ganberak Osasunaren zorrari buruz egindako txostenean esaten den bezala, Nafarroako Gobernuak 2009ko maiatzean erabaki zuen bermeen erabateko salbuespena egitea 17.317.273 euroren geroratzeari zegokionez, krisian dauden enpresentzako laguntzei buruzko legediaren babesean.

Horri buruz, parlamentari honek ondoko hau jakin nahi du:

Lehena. Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egin zituen Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeko 21. artikulua –Jarraipena eta babesa– oinarri?

Bigarrena. Operazio hori dela-eta Europar Batzordeari igorritako urteko txostenaren kopia, lege horretan ezarritako laguntza-araubidearen funtzionamenduari buruzkoa.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, baztertze arriskuan dauden familiei etxebizitzaren funtzionamendurako oinarrizko hornidurak bermatzeko laguntzei buruzkoa.**

*M.<sup>a</sup> ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.<sup>a</sup> Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, baztertze arriskuan dauden familiei etxebizitzaren funtzionamendurako oinarrizko hornidurak bermatzeko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengo-

tan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Programa-akordio 3. atalean –Pobrezia energetikoa– esaten da “2015eko urria baino lehen etxebizitza batek funtzionatzeko oinarrizko hornigaia” bermatuko zaiela “gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden familiei”.

– Urriaren 1ean ba al dago gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dagoen familiarik, bere etxebizitzan oinarrizko hornigaiak bermatu gabe dituenik?

– Gizartetik baztertuta gelditzeko dagoen zenbat familiak jaso du laguntzaren bat xede horrekin 2015eko uztailaren 23az geroztik?

– Zer aurrekontu esleitu da horretarako?

– Uztailaren 23ra arte ba al zegoen egoera horri aurre egiteko laguntzarik? Hala baldin bada, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dagoen zenbat familiak baliatzen du laguntza hori? Zer aurrekontu esleitu zen horretarako uztailaren 23az geroztik?

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Nafarroako Ubidean egin gabe dauden faseek ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidean egin gabe dauden faseek ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako

galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Gobernuaren eledunak adierazi zuen irailaren 30eko –asteazkena– gobernu-bilkuraren osteko prentsurrekoan, Gobernuak Nafarroako Ubidea egiteko falta diren faseak aztertze eta geldiarazteko aurreikuspenari buruz ari zelarik, bilerak eginen ari direla proiektuak ukitutako herrietako alkateekin. Hori dela-eta, honako hau galdetzen diot Gobernuari:

1.- Gobernua zer alkateekin bildu da irailaren 30a bitartean gai hori jorrazteko, kontseilari eta eledunak adierazitakoaren arabera?

2.- Zer egunetan eta tokitan egin da kontseilari eta eledunak adierazitako bilera horietako bakoitza?

3.- Nork parte hartu du bileretan?

4.- Bildu al da beste erakunde edo kolektiboren batekin irailaren 30a bitarte Nafarroako Ubidea egiteko falta diren faseez jarduteko?

Corellan, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Alesbeseko “El Castellar” ikastetxe publikoari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Alesbeseko “El Castellar” ikastetxe publikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Villafrancako “El Castellar” Ikastetxe Publikoak 2015-2016 ikasturterako 3 urtekoen gela bikoiztea eskatu zuen. Zergatik ez da egin?

Corellan, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Larraungo Gabari etxeari buruzkoa.**

### *DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Larraungo Gabari etxeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko

Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Larraungo Gabari etxearen jabetza Nafarroako Gobernuarena da, baina Larraungo Udalari zesioa egin zion. Bestalde, noizbait Larraungo udaletxea bertan kokatzeko lanak eginez gero, jabetza Larraungo Udalari emateko borondatea ere adierazi izan du Nafarroako Gobernuak.

### Galdera

– Zein da Gabari etxearen zesioaren gaur egungo egoera?

– Zein da eraikina Larraungo Udalaren jabetzakoa izan dadin dagoen aukera, eta zein dira jabetza udalarena izan dadin egin beharreko urratsak?

Iruñean, 2015ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña



## **Galdera, Justizia Ministerioarekin Justizia Administrazioaren hobekuntza teknologikorako sinaturiko hitzarmenari buruzkoa.**

### *INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, Justizia Ministerioarekin Justizia Administrazioaren hobekuntza teknologikorako sinaturiko hitzarmenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Inma Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak emandako informazioaren arabera, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Justizia eta Barne Departamentuak hitzarmen bat sinatu du Justizia Ministerioarekin, Justizia Administrazioa teknologiaren aldetik hobetzeko gure erkidegoan, 83.534 euroko zenbatekoarekin.

#### Galderaren testua

– Hitzarmen hori IUS+Red izenez sinatuaren jarraipena al da, zeinak 2014ra arteko indarraldia eta Feder funtsen finantzaketa baitzuen?

– Zein da hitzarmen berriaren indarraldia?

– 83.000 euroko zenbatekoa 2015erako al da, ala hitzarmenaren indarraldi osorako? Indarraldi osorako baldin bada, zer zuzkidura aurreikusten da indarraldi-urte bakoitzerako?

– Xede jakineko hitzarmena denez, zer garapen informatiko zehatzetan aplikatuko da? Kuantifikatuta al daude horiek?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

## **Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako batzorde klinikoari buruzkoa.**

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako batzorde klinikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascuésék,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoak honako hau xedatzen du 16.3 artikuluan: "Autonomia erkidego bakoitzean batzorde kliniko bat egonen da gutxienez ere, osasun-sare publikoko zentro batean. Batzordeko kide titular eta ordezkioak osasun-agintari eskudunek izendatuko dituzte, urtebetarako gutxienez. Izendapena kasuko autonomia erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da."

Galderaren testua

– Nork osatzen du gaur egun batzorde kliniko hori?

– Osasuneko kontseilariak pentsatuta al dauka batzorde kliniko horren osakerari dagokionez inolako aldaketarik egitea?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa.**

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legeko 9. artikulua haxe ezartzen du: "Osasun Departamentuak, maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua betetzeko, itxaron zerrendei buruzko txosten bat eginen du sei hilean behin, eta egokitzat jotzen dituen beste datu batzuk ere jasoko ditu; adibidez, foru lege honek bermaturiko gehie-

nezko epeak gainditutako eta berme-sistemei atxikitako gaixoen kopurua, eta xede horretarako jarritako zentroak. Txosten hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da."

Galderaren testua

– Osasun Departamentuaren ustez, artikulua hori betetzen ari al da?

– Ezezkoan, Osasun Departamentuak aurreikusita al dauka egoera hori zuzentzea eta artikuluan xedatutakoa betetzea?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

**Galdera, laneko osasun plan berri bat prestatzeari buruzkoa.***MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, laneko osasun plan berri bat prestatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascuésék,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Lan Osasunaren II. Plana 2007tik 2012ra bitartekoa izatekoa zen; ia 3 urte igaro dira haren indarraldia bukatu zenetik, eta planaren ebaluazio bat egitea ere aurreikusita zegoen.

Galderaren testua

– Osasun Departamentuak aurreikusita al dauka lan osasunaren plan berri bat egitea?

– Ba al dago ebaluaziorik?

– Osasun Departamentuaren ustez, egungoaren ebaluazio bat egin behar al da beste plan bat egiteari begira? Hortaz, departamentuak aurreikusita al dauka ebaluaziorik egitea?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 7.1. artikulua betetzeari buruzkoa.**

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 7.1. artikulua betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legeko 7.1 artikulua haxe ezartzen du: “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hilero informazioa emanen du Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez, eta herritar guztien eskura jarritako beste hedabide ofizial batzuen bitartez, prozedura kirurgikoetarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu bakoitzean dagoen gaixo-kopuruari eta itxaronaldien batez bestekoari buruz.”

Galderaren testua

– Osasun Departamentuaren ustez, artikulua hori betetzen ari al da? – Ezezkoan, Osasun Departamentuak aurreikusita al dauka artikuluan xedatutakoa betetzea?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, Alesbeseko “El Castellar” HLHIPari buruzkoa.**

*CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Alesbeseko “El Castellar” HLHIPari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Villafrancako “El Castellar” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak 2015-2016 ikasturte honetarako eskatu du, hezkuntza-neurri arrunt gisa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako gela bat (3 urtekoa) bikoiztea.

Eskaera horren oinarrian dago –antza denez, Hezkuntza Departamentuak ezezkoa eman dio–taldearen ratioa handia dela eta hezkuntza-

laguntzako berariazko beharrianak pilatu eginen bide direla.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari dagokionez beharrezkoak diren baliabideak ziurtatzea, eta gure parlamentu-lana egoki egin ahal izate aldera, honako galdera hauek egingen ditugu:

Galderaren testua

Zergatik ez da bikoiztu 2015-2016 ikasturte honetarako Villafrancako "El Castellar" HLHIPko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako unitate bat?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Parlamentarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen bidaia ofizialengatiko ordainsarien araubidea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikotarako Zerbitzuko buruaren txostena, parlamentarien bidaia ofizialen eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenen ondoriozko ordainsarien araubideari buruzkoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritako esku-menekin bat etorritz, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Bidaia ofizialengatiko ordainen zenbatekoa ezartzea, NAOn argitaratu eta biharamuneko ondorioekin: Nafarroatik kanpora eginiko bidaie-

tan, eguneko 80,00 euro; eta atzerrira eginiko bidaietan, eguneko 110,00 euro.

**2.** Xedatzea, halaber, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzua arduratuko dela ostatuaren kudeaketaz eta, kasu bada, garraio bidearen erreserbaz.

**3.** Araubide hau Legebiltzarreko langileei ere aplikatuko zaie lanaren kariaz egiten dituzten bidaietan.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Nafarroako Parlamentuko Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearen eleduna aldatzea.**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, 2015eko urriaren 1eko idazkiaren bidez, jakinarazi zuen José Javier Esparza Abaurrea jauna izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Carlos García Adanero jaunaren ordez.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---



